

LA FIESTA DE ZUBIETA



En la celebrada este año el día 30 de Setiembre último en aquel pintoresco é histórico valle, con mayor solemnidad y animación, si cabe, que en años anteriores, el digno Alcalde de San Sebastián, don Joaquín Lizasoain, pronunció en bascuence, frente á la casa solar de Aizpurua, el siguiente discurso que nos, complacemos en publicar en estas páginas:

«Nere erritar maitiak: Orain dala amazpi urte jarri zan usantza eder au: emen urtero juntatzia gure aurreko gurasuen memoriya onratzeko. Nikolas Soraluze jaunari zor diyogu oitura au ipintzia eta baita ere arri oyek jartzia Zubietako junta oroigarriyak ez aztutzeko.

Eche onetan juntatu ziran orain dala 81 urte Donostiko alkate, apaiz eta persona prinzipalenak gure erri maitia erre zan denboran eta ayen artian zeguen nere aitona José F. Minondo jauna.

Neri tokatu zait aurten nere aitona eta bere lagunen memoriyan festa onen buru egitia eta kunplitzen det nere enkarguba gusto aundi batekiñ.

Dakizuten bezela iru junta edo batzarre egin ziran eche onetan eta orduban erabaki zan gure Donostiya berrizkotik alchatzia lengo bere lekuban.

Azkeneko juntan eman zituzten eskerrak Zubietar guztiyai beren nobleza eta borondate onagatik egun triste ayetan. Konsidera zagun zer animoko gizonak izango ziran ayek desgraziayako egun ayetan beren penak alde batera utzi ta nola jarri zuten pensamentu guziya erri maitiaren probechuban, eta Zubietako despeida artan ikusten da zer gustora egon ziran bere anai artian.

Ejemplo eder abek ez dira arritzekuak, zergatikan biyotz ayek ziran denak euskaldunak, eta jakiña da euskaldunaren biyotza desgraziayan ezagutzen dala.

Utzi zazkigun, bada, gure miñeri chikipak alde batera, eta logratuko ditugu gure erri maitiarentzat probechuba eta Euskal-erriarentzat gloriya.

¡Biba Zubietako Donostiarrak!»

